

Ildako bat ta naiz bere amaz
 Edozeñek du erruki
 Zure semea gurutzan illaz
 Kontu au ez da iduki;
 Soldadu batek lantzadaz dio
 Bere sayetza idiki
 Ta zuri berriz golpe berakin
 Biyotza zaitzu ebaki.

Errukiturik...

Laztanez bete ondoan zure
 Semearen arpegia
 Obi batian sartutzen dute
 Gorputz adoragarria,
 Azken agur au ¿ez da zuretzat

¡Ama! pena chit andia!
 Bai nere seme pekataria
 Niretzat da geyegia.

Errukiturik...

Bakardadian zuri nai dizut
 Nere Ama egin lagun
 Aldendu gabe zugandik beti
 Egoteko gau ta egun;
 Jesus zurekin maitatutzea
 Orra danok zer nai degun
 Zeruan beti beti gloriya
 Biyokin izan dezagun.

Errukiturik...

PEDRO MIGUEL URRUZUNO-KOAK.

1882-ko Marchoan.

JESUS MAISU DIBINOAREN

ZAZPI-ITZAK.

Gurutzean josirik, ta esan al baño pena ta tormentu andiagoakin bazegoen ere, Katedra edo leku altu artatik zeruko dotriña guri erakusteko, Jesu-Kristo, gure Jaunak, zazpi itz misterioz beteak esan zituen.

Lenengo itza Redentore maitearen ofizioa egiteko, bere persegido-reentzat barkazioa Aita Eternoari eskatzea izan zan: «*Nere Aita: barkazaiezu, bada zer egiten duten eztakite.*»

Bigarrena izan zan lapur onari salbazioa seguratzeta. Onek esan zion: «Jauna, zure Erreinora zoazenean, nizaz akorda zaita.» Eta Zeruko Erregeak gurutzetik eranzun zion: «*Seguru zaude; gaur Paradisuan nerekin egongo zera.*»

¡O Jesusen Biotzeko amorio irazakia! ¡O zer bitarteko segurua!
¡O lapurraren dicha! ¡O zer gloria bizia!

Irugarren itza zan bere Ama maitea S Joani agintzea: eta au bere Amari ematea. Ala S. Joanek beretzat eta bere kontura artu zuen Amatzat: eta Amarik onenak S. Joan, da gu argan bere seme edo umetzat artu ginduen.

¡O Jesus Aitarik onena! ¡O pekatarien Ama gozoa!

Laugarren itza bere Aita Eternoari egin zion: «*¡Nere jainkoa, nere Jainkoa! ¿Zergatik onela desanparatu nazu?*»

Au pena ta tormentuetan esan zuen da iltzeko zorian zegoela.

¡O, nere Jesús! Ta zer tristeza ta naibageak gugatik onela zure Biotza estutu zuten!

Bostgarrena. Gure Salbadorea odolez guzia usttu ta leortu zanean, esan zuen: «*Egarriak nago.*»

Jainkoaren borondatea zan bere Semeari beazuna ta binagrea ematea. Orregatik esan zuen da eman zioten. Gugatik geiago padezitzeko egarria zuen, da gure animak salbatzeko desoea. ¡O, amoriozko zure animaren egarri bizia!

Seigarrena. Ikusi zuenean bere Aitaren Legea ta borondate guzia osoro bete ta kunplitu zuela, esan zuen: «*Akabatu da guztia. Munduaren erremedioa egin da. Pekatarien salbaziorako bear dan guzia egin det.*»

¡O nere Salbadore maitea! ¡O, amorio paregabea!

Zazpigarren itza izan zan, Aita Eternoari bere Espiritua enkomendatzea: ala atzeneko asnasetan seme maiteak esan zion: «*Nere Aita zure eskuetan nere Espiritua entregatzen dizut.*»

Itz au esan da burua makurtu ta iltzan. ¡O, Jesús ona ta egiazko gure bizitza! ¡Munduarentzat betiko ill da zuretzat bakarrik bizi nai det!

AGUSTIN CARDABERÁZ.

(1765).

